

Getxo >MEETING<

Egutegia eta gaiak, GETXO MEETING 2025

Urtarrilak 30

Zure hurrengo urteko estrategia zehaztu ezazu

Argi eta irmoki hasi ezazu urtea eta 2025erako estrategia zehatza ezarri. Saio honetan, salmenten gutxieneko helburuak zehaztuko ditugu eta zure helburu komertzialak lortzeko bidean aurrera giteko giltzarri diren taktikak berrikusiko ditugu.

Otsailak 13

2025erako zure plan komertziala diseinatu

Lortu nahi dituzun diru-sarrerak izan ditzazun, ezinbestekoa da zure saltzeko esfortzuak gidatuko dituzten ibilbide-orria eta ekintza-plana egitea. Hortaz, martxan jarriko gara eta helburu errealistak ezarriko ditugu, aukerak identifikatuko ditugu eta zure burua antolatzen lagunduko dizugu, urtea ahal bezainbeste aprobetxatu dezazun.

Otsailak 27

Gosaria. Zure aurrekontuak hobetu eta zure proposamen komertzialak findu

Zure salmenten proposamenek zure bezeroen arreta deitzen dute? Giltzarri den edukia aztertuko dugu, zure aurrekontuek eta proposamenek benetan eskaintzen duzunaren balioa islatu dezaten. Nahi baduzu, proposamen bat ekarri dezakezu, *feedbacka* jasotzeko.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Martxoak 13

Zure Instagram profesionaleko kontua optimizatu eta zuzeneko feedbacka jaso

Zure Instagrameko kontuak benetan islatzen al du bezeroei transmititu nahi diezuna? Edukiei dagokienez funtsezkoak diren elementuak eta estrategiak identifikatzen lagunduko dizugu, bezeroak erakartzeko eta zure negozioa paregabe egiten duten alderdiak nabarmentzeko

Martxoak 27

Zure LinkedIneko kontua hobetu eta zuzeneko feedbacka jaso

LinkedIn ezinbestekoa da profesional askorentzat, baina zure kontuak argi zehazten al ditu zure indarguneak? Bertaratutako LinkedIneko kontuak ebaluatu eta hobetuko ditugu, erakargarriagoak izan daitezen eta negozio-aukera gehiago izan ditzaten.

Apirilak 10

Netwalking. zabaldu ezazu zure kontaktu-sarea oinez zoazen bitartean

Zure networkingeko ohiko dinamika aldatu ibilaldi batean, non ideiak partekatzeko eta kontaktu berriak egiteko aukera izango baituzu; hori guztia, giro lasai eta emankorren.

Maiatzak 8

Sormen Hub: kostu txikiko ekintzak sortu zure negozioa sustatzeko

Inbertsio handirik egin gabe zure negozioa sustatu nahi baduzu, saio hau zuretzat da. Sormenezko ideiak baliatuz, baliabide gutxiarekin kanpaina eraginkorrak egiteko moduak aztertuko ditugu.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Maitzak 22

Zein da zure kontaktu-sarea. Nola zabaldu dezakezu?

Zure kontaktu-sare profesionala aktibo baliotsua da. Saio honetan, paperean islatuko dugu eta hura sendotu eta handitzeko moduak aztertuko ditugu, zure salmenta-aukerak areagotze aldera

Ekainak 5.

Egunerokotasunerako trikimailuak eta tresnak

Nola lagundu gaitzake adimen artifizialak egunerokotasunean denbora eta lana aurrezteko? Trikimailuak eta tresnak partekatuko ditugu.

Ekainak 19 .

Estrategia birpentsatzeko Art Thinkinga

Zure estrategia egokitu ezazu saiorik inspiratzaileenean. Urte erdi igaro da jada eta une bikaina da zer nahi duzun zehaztu eta zure balioa aztertzeko, bai eta, beharrezkoa bada, zure estrategia berrorientatzeko ere. Sormen-saio honetatik irteten zarenerako ideia, hausnarketa eta motibazio berriak izango dituzu.

Irailak 25

Lanera itzultzea: salmenten plana praktikan jarri, hiru hiletan

Helburua argi zehaztuta hasi ezazu berriro urtea. Hurrengo hiru hiletarako ekintza-plan zehatza diseinatuko dugu; hala, zure salmenten helburuak berehala martxan jarri ditzakezun ekintza zehatz bihurtuko ditugu.

Urriak 9

Networking Punta Begoñan

Beste ekintzaile batzuekin konektatu inguru paregabe batean. *Networking*-ariketa eginez itsasora begira zure kontaktu-sarea zabaltzeko aukera aprobetxatu.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica

Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140

getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Urriak 23 .

“Nire egunari orduak falta zaizkio!” Nola antolatu naiteke hobeto eta daukadan denbora nahiz energia aprobetxatu?

Ekintzaile edo enpresaburu gisa gutxiago estresatzeko eta hobeto bizitzeko estrategiak, tresnak eta trikimailuak, betiere zure izaerari eta jarduteko moduari men eginez.

Azaroak 6.

Zure A salmentetarako webgunea aztertu eta hobetu

Funtsezkoa da ondo egituratuta eta optimizatuta dagoen webgunea izatea bezeroak erakartzeko. Bertaratutakoen webguneak aztertuko ditugu eta feedbacka emango diegu, salmenta-aukerak areagotu ditzaten.

Azaroak 20

Merkataritza-lanetan egin ohi diren akatsak: nola ekidin akatsak eta zure salmentak hobetu?

Saltzeko estrategian akats txikiak egiteak zure emaitzak okertu ditzake. Akatsik ohikoenak identifikatuko ditugu eta horiek ekiditeko konponbide praktikoak ikasiko ditugu, zure saltzeko esfortzuak eraginkorragoak izan daitezzen.

Abenduak 4

Urteko erreporoa: zure lorpenak nabarmendu eta zure salmentetarako hurrengo helburuak ezarri

Urtea energiaz beteta amaitzeko, 2025eko zure lorpenak berrikusiko ditugu eta 2026rako helburu berriak ezarriko ditugu. Saio honetan zure aurrerapenez ohartuko zara eta hurrengo urteko erronkei aurre egiteko prestatu zaitezke.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • <https://www.getxo.eus/promocion-economica/>

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:

